

**EKINTZA
SINDIKALEKO
INFORMEA
(2021-2022)**

2022ko uztaila



AURKIBIDEA

1.- SARRERA	3
2.- INFORMEAREN ONDORIO NAGUSIAK	3
3.- 2021/2022 KURTSOA DATUETAN	4
4.- ENPLEGUAREN DEFENTSA, BIZITZABIZIGARRIEN ALDE ETAPREKARITATEAREN AURKA GERO ETA BORROKA GEHIAGO LANTOKI ETA SEKTOREETAN	4
5.- BORROKA MOLDEAK ERABERRITZEN	8
ERANSKINA	8

1.- SARRERA

Prekaritatea eta pobrezia inoiz ez bezala hedatzen ari da gurean ere, 2008 urtearen ondoren, krisi ekonomikoari aurre egiteko aitzakiarekin langileriaren prekarizazio prozesua azkartzeko erabakiak hartu zituen Espainiako Estatuko Gobernuak, eta orain, oinarri horien gainean ari zaie erantzuten krisi sistemikoaren ondorioz sortzen ari den agertoki berriari. Ondorioak leuntzeko erabakiak hartu arren, nekez ekidingo da ondorio kaltegarrienak langileok jasatea. Pandemia, energia iturrien eta material fosilen agortzea, gerra testuinguruak, klima larrialdia... mundu osoa zeharkatzen duen krisi sistemikoaren ondorio dira, bidegabea den sistema bideraezin ari baita bilakatzen, sistema planetaren muga biofisikoekin ari da talka egiten.

Langileok sortu ez dugun agertokian langileok kaltetuen, horrela laburbildu dezakegu munduko eta Euskal Herriko langileak bizi duen egoera. Eros-ahalmenaren galera, prekarizazio modu berriak, pobretzearen areagotzea... horixe da gero eta dualizazio handiagoa bizi duen langile klasearen errealitatea. Gizona izan, emakume edota sexu-genero disidente izan, gaztea, zuria, migratua edota arrazializatua... modu desberdinean eragingo digu egoerak, zapalkuntzak modu gordinagoan eragingo baitigu kasu askotan.

LABen X. Kongresuan bitzita bizigarriak eraikitzearen aldeko hautua berretsi dugu, eta helburu hori lortzeko borroka aktibatzea beste aukerarik ez dugu izango: tokian tokiko errealitateari loturiko borroka, langileon beharren arabera. Kapitalaren ofentsiba handia ari da izaten, patronala ez dago prest bere irabaziak gutxitzeko, eta helburu hori eskuratzeko ez dauka langileon eskubideak zapaltzeko inolako erreparorik. Gainera, bertako zein kanpoko instituzioak kudeatzen dituzten alderdi politikoek patronalaren diskurtsoa bere egin eta langileria interpelatzeko ari dira.

Langileriak ulertu du egoera zein den. Langileon lan eta bizi baldintzek okerrera egin ez dezaten borroka egitea beste aukerarik ez dugu, bitzita bizigarriak eraikitzeko prozesuan urrats berriak eman nahi baditugu borroka eta mobilizazioa izango dira geure lanabes. Aurtengo kurtsoa borroka sindikalen ugaritze nabarmenarekin bukatuko dugu, eta datorren kurtzorako hautua ere garbia da: langileon borroken aktibazioa areagotzen jarraituko dugu.

2.- INFORMEAREN ONDORIO NAGUSIAK

- **Borroka ziklo berri bat abian da.** Borroka kopuruak eta baita greba kopuruak ere gorantz egin du, eta gorantz egiten jarraituko du. Egoerak horrela eskatzen duelako, eta LABek borroka eta aktibazio sortzeko lanean jarraituko duelako. Publikaturiko azken txostena oinarri harturik, borroka %32,28 areagotu dira.

- **Sektore feminizatueta igoera nabarmenagoa izan da.** Izan ere, borroken igoera %62,07koa izan da sektore horietan. Sektore mailako borroketan duten presentzia handia ere nabarmendu beharrean gaude, izan ere borroka horien artean %60 feminizatua izan da: helduen egoitzak, kontserberak, garbitzaileak, merkataritza, irakaskuntza, etxeko langileak... emakumeen presentzia handiko sektoreak aitzindariak izan dira borroka aktibatzearen garaian.

- **Garaipenak lortu ahal izateko denbora gehiago behar dugu borrokan.** Patronal eta instituzioen jarrera argia da: borroka sindikalak isilarazi eta oihartzunik ez emateko erabakia hartu dute. Ondorioz gehiegizko zerbitzu minimoak ezartzen dizkigute, borroka sindikala eta grebak kriminalizatzen dituzte eta akordioetara iristeko zailtasun handiagoak ezartzen dizkigute. Egoera honek borroka indartzera eta aldi berean luzatzera garamatza.

- **Borroka ondorioz lorpen garrantzitsuak lortu ditugu.** LAB sindikatu eraginkorra da. LABek pizten dituen borrokek fruituak ematen dituzte, borrokatu eta adostasunak lortzen dituen sindikatua gara.

3.- 2021/2022 KURTSOA DATUETAN

168 borroka piztu ditugu.

94 borroketan greba erabili da. Beraz greben presentzia borroken % 56an egon da.

Sektore mailako borroka 30 izan dira. 18 feminizatuak, sektore mailako borroka guztien %60.

Enpresa mailako borroka 138 izan dira. 29 feminizatuak.

3.1- KURTSOEN ARTEKO KONPARAKETA

Borroken gorakada nabarmena ari da izaten. %32,28 borroka gehiago aktibatu ditugu, %62 gehiago sektore feminizatuetan. Greba kopuruak ere gora egin du, azken informean 80 greba izan baziren, oraingoan 94ra igo da kopuru hori.

	2017/2018		2018/2019		2021/2022	
		GREBAK		GREBAK		GREBAK
Borroka kopurua	124	67	127	80	168	94
Sektore feminizatuak	27		29		48	
Sektore mailakoak	34		18		31	
Sektorekoak feminizatuak	12		7	5	18	
Enpresa mailakoak	90		109		140	
Enpresakoak feminizatuak	15		22	8	30	

4.- ENPLEGUAREN DEFENTSAN, BIZITZA BIZIGARRIEN ALDE ETA PREKARITATEAREN AURKA GERO ETA BORROKA GEHIAGO LANTOKI ETA SEKTOREETAN

LABek bizitzaren prekaritatea bere osotasunean ulertzen du. Enpleguaren esparrua gainditzen dituen borroka sustatzeko hautua egin dugu, lana bere osotasunean ulertu eta bizitzaren prekarizazioari aurre egiteko determinazio osoa dugu.

Era berean, lantegietan ekintza soziosindikala garatzeko konpromisoa garatzen ari gara. Prekaritatea bere osotasunean borrokatuz, bizitza bizigarria garatu ahal izateko proposamen eta borroka lantegietara eramanez.

Zerbitzu publikoetan esaterako, lan baldintzen hobekuntzak aldarrikatzeaz gain zerbitzua hobetzeko proposamenak batus mobilizazio eta borroka ugari egin dugu. Hona hemen horietako batzuk:

-Osakidetza - Pandemian zehar argi gelditu da osasungintza publikoan dagoen inbertsio falta. Langileek babes neurri gabe lan egiteaz gain, zerbitzua behar bezala emateko arazoak biderkatu ziren, batez ere lehen arretan. Intersindikala aktibatu ondoren osasungintza publikorako inbertsio handiagoak eskatu ditugu, bereziki lehen arreta indartzeari begira. Bestalde, negoziazio kolektiboa erabat blokeatua egon da Osakidetzan, bertako arduradun ezberdinek etengabe alde-bakarreko erabakiak inposatu dituztelarik. Bereziki esanguratsua izan da estabilizazio prozesuetan izan duten jokabidea, inolako negoziatorik izan gabe onartu dituzte eta Lan Eskaintza Publikoak. Hala ere, langileen presioa dela eta garapen profesionalerako akordio historiko bat sinatzea lortu dugu, lehen aldiz Osakidetzako langile guztiei aplikatuko zaiona.

-EAE-ko irakaskuntza publikoa - Lau urteko borrokaldi luze baten ondoren akordio garrantzitsuak lortu dira, esate baterako, eskoletan ratioak jaisteko akordioa. Hainbat greba egun eta mobilizazio esanguratsu egin ondoren, 2018an hasitako bidea borobiltzea lortu dugu, eskoletako lan zama arindu eta matrikulazio jaitsieraren aurrean zerbitzu publikoa blindatzeko bidean. Hala ere, egonkortze prozesua ez da amaitu eta datorren ikasturtean mobilizazioekin jarraitu beharko dugula argi dugu, bai irakasle kolektiboan zein irakasle ez diren kolektiboetan ere.

-Nafarroako 0-3 - 60 eguneko greba egin dute Nafarroako haurreskoletako langileek, ratioak jaitsi eta lan baldintzak duintzeko aldarrikapenarekin. Publikazioaren bidean, lan hitzarmen bat negoziatzearen aldeko apustua egiten dugu, zerbitzu publiko honetan dagoen dispersioarekin amaitu eta hezkuntzako ziklo garrantzitsu honetan langileek lan baldintza duinak izan ditzaten.

4.1- Prekaritatearen aurkako borrokak

Langileon bizitza zapalkuntza anitzek zeharkatzen dute. Zapalkuntza horiek gainditu eta bizitza bizigarriak eraiki nahi baditugu, ezinbesteko baldintza da prekaritatearekin amaitzea. Prekaritatea forma berriak ari da hartzen, sistema neoliberalak lan eremuaren etengabeko aldaketa bultzatu eta berau baliatzen du zapalkuntza forma berriak sortzeko: digitalizazioa euren interesen arabera erabiliz, langileen banaketa eta atomizazioa bultzatuz, iruzurrean sorturiko figurak bultzatuz edota bestelako tresnak erabiliz.

Prekaritatearen aurkako borroka gure lehentasunen artean egon da ikasturte honetan. Negoziazio kolektiboari lotutako borroka asko izan dugu aurten, prekaritateari aurre egin eta lan eta bizi baldintzak hobetzea helburu, baita prekaritate egoerei modu espezifikoan aurre egiteko borroka ugari ere.

Bilbozi enpresan esaterako, Bilboko bizikleta publikoak kudeatzen dituen zerbitzuan, LABek egindako borroka eta inurri lanaren ondorioz, euren lan baldintzak nabarmen hobetzea lortu dute.

Lidl Gipuzkoan ere, pandemian lehen lerroan egon osteko nekea eta eskuzabaltasuna konpentsatzea lortu dute akordio berri batekin.

Lezoko kiroldagiko langileek esaterako, langileen artean bizi zuten eskala bikoitzarekin bukatzea lortu dute. LABi esker, langile guztiei Titularitate Publikoko Kirol Instalazioen hitzarmena aplikatzeko akordioa lortu dute hilabeteetako borroka-oren ostean.

Elkar taldean, hitzarmen historikoa lortu dugu. Estatu espainoleko hitzarmena aplikatuzetik Hego Euskal Herriko 4 lurraldeak barnebiltzen dituen hitzarmena sinatu du LABek, %16ko soldata igoerekin eta baldintza sozialetan aurrerapauso handiekin.

4.2- Sektore feminizatuak borroken ugaritzean aitzindari

Sektore feminizatueta borroken igoera ikusgarria azpimarratu nahi dugu, iaz baino %62 borroka gehiago aktibatu baititugu sektore horietan.

Antolaketaarako zailtasun handiagoarekin (atomizazioaren ondorioz kasu askotan), patronalaren aldetik akordioak ekiditeko blokeo handiagoa jasanez, soldata baxuagoekin (LABen datuen arabera sektore feminizatueta kategorien %71,42k hilean 1.400 euro gordin baino gutxiagoko soldata du), lan baldintza okerragoekin eta kasurik gehienetan ordaindu gabeko zaintza eta etxeko lanen karga handienarekin. Emakumeek zailtasunak gainditu eta borrokarako prest daudela erakutsi dute, euren lan eta bizi baldintzak duintzeko kalera ateratzeko gertu daudela.

Sektore mailako borroken gehiengo handi bat sektore feminizatuetaoak dira, %60 hain zuzen ere, medioetan isla hori ez badute ere. Honakoak dira horietako batzuk:

- Etxeko langileen hitzarmen kolektiboa lortzeko borroka. Bi urteko prozesuaren ondoren etxeko langileen sail sindikala sortu eta hitzarmen kolektiboa sortze bidean urratsak ematen hasi gara. Plataforma osatu ondoren ekainaren 9an izan genuen lehen mahai negoziatzailean Confebask-ek uko egin zion berau negoziatzeari. Mobilizatzen eta borrokan jarraituko dugu bizitza sostengatzeko oinarrizko diren zaintza lanak burutzen dituzten langileen baldintzak duinak izan daitezen, eta bide horretan etxeko langileen lan hitzarmen kolektiboa lortzea izango da lehen urratsa.

- **Bizkaiko garbiketa, Gora garbitzaileak.** 30 urtez grebarik egin gabe egon ostean, 10 greba egun egin dituzte da-goeneke. LAB (eta ESK)-ren inizatibaz sortutako Gora garbitzaileak plataformak helburu bi zituen: hitzarmena berritzeko prozesuan eragitea eta garbitzaileak aktibatzea. Langileak ahalduntzea lortzearekin batera, patronala estutu eta panora-ma komunikatiboa astintzea lortu dute. Ekintza sindikal eredu berri bat posible egin dute. Oraindik hitzarmena berritzeko euren lehen helburua lortu ez duten arren, lortuko dutela argi dute, ordu arte borrokari tinko eusteko konpromiso irmoz.

- **Bizkaiko kontserberak.** Pandemian funtsezko sektoretzat jo den sektore erabat feminizatuan, 1.200 euroko gutxieneko soldata bermatzen duen akordioa sinatu dugu.

Akordioak bermatzen duen beste puntu garrantzitsu bat sexu jazarpenaren, sexu arrazoiengatik jazarpenaren eta sexu orientazioagatik jazarpenaren eta genero identitate eta adierazpenaren aurkako jarduera protokolo bat egitea izan da.

- **Helduen egoitzak.** Gipuzkoa eta Bizkaian lan hitzarmenak berritzeko borroka abiatu genituen. Kasu bietan egoera antzekoa da; patronalak negoziazioak blokeatuta ditu eta dagokion Foru Aldundiak beste aldera batera begiratzen du. Langile publikoekin lan baldintzak parekatzeko norabidean akordio bat erdietsi nahi dugu eta hamarnaka greba egun egin dituzte zerbitzu publiko honetan lanean dauden emakumeek. Araban eta Nafarroan bestalde, estatalizaziotik atera eta bertako lan hitzarmena lortzeko borrokatzen ari gara.

- **Cemosa.** 10 egun iraun zuen greba mugagabe egon ondoren, prekaritatearen aurkako eta enpleguaren aldeko hitzarmena lortu zuten langileek.

- **Gipuzkoako Aldundiko eraikinen garbitzaileak.** 20 greba egun ostean ekainaren 6tik greba mugagabe daude. Borroka eredugarria izanik ere, komunikatiboki isildua izan da, instituzioetatik ezikusia egin dute eta patronala mugitu gabe eroso dago.

- **Bizkaiko elikadura merkataritza.** Elikadurako enpresek pandemian izandako irabazi ikaragarriak ezin ziren soilik patronalen esku gelditu, irabazi horiek langileek egindako lanaren emaitza direlako. Bizkaikoek lortu dute hitzarmena berritzea, euren lan baldintzak eguneratuz. LABen inizatibari esker gainera, soldata apalenei gehiago igotzeko formula adostu da.

4.3- Soldata arrakalen aurkako borroka

LABek egunerokoan burutzen du soldata arrakalen aurkako borroka: negoziazio kolektiboan, aktibatzen dituen bestelako borroka edota mobilizazioetan etab.

Emakumeek, gazteek, migranteek... jasaten dituzten diskriminazio egoera anitzetako bat da soldata arrakala, batez beste-koa baino soldata baxuagoa jasotzen baitute.

Sexu-generoaren arabera soldata arrakala egituraz mantentzen denetako bat dugu. Sexu-generoaren arabera lan banaketak edota sektore feminizatuetakoa lanen aitortza ezak ondorio ezin okerragoak dakartza emakume langileei dago-gokienean. Lan-hitzarmenetan oso nabaria da arrakala hori, bai sektore desberdinen artean dagoena eta baita sektore bereko kategorien artean dagoena ere.

Soldata arrakala ardatz harturik mobilizatu ginen otsailaren 22an Confebask eta Cen-en egoitzen aurrean, patronalak emakumeak bigarren mailako langile tratatzen dituela salatze eta soldata arrakalarik gabeko hitzarmenak aldarrikatze-ko.

Horrez gain, hainbat enpresetan lortu ditugu soldata arrakalaren aurkako akordioak. Adibidez, **Iruñeko Isringhause enpresan**, hilabete erdiko greba baten ondoren, non langileen ia %100 greban egon zen, zerbitzu minimoak kenduta, bertan zegoen eskala salarrial bikoitzarekin amaitzea lortu da, 400 €ko soldata eskala bikoitza. Batasun hagitz handia eman zen sindikatu eta langileen artean.

4.4- Langile kolektibo berrientzat sindikalismoa egiten

LABek erabakia du langile kolektibo berrietara heltzea, ekintza sindikalerako eskaintza zehatza egitea, kolektibo horiek borrokara batzeko asmoarekin. Zentzu horretan esperientzia ugari izan ditugu kurtso honetan.

Riderrak besteren konturako langileak direla dioen epaiak Hegoaldeko herrialde guztietan lortu dira. Orain, langile horiek antolatu eta euren lan baldintzak hobetzeko borrokaldietan sartzera goaz.

Eremu antzekoan lan egiten dute Amazoneko paketeak garraiatzen dituztenek, enpresa ezberdinek subkontratatuak le-geari izkin eginez. Inspezioan salaketa ezberdinak irabazi ditugu merkantzien garraioko hitzarmena aplikatu behar zaiela esanez. Pixkanaka, bagoaz munstro multinazional honen barrura sartzen, langileak ahaldunduz eta antolatuz.

Azpikontratetako borroketan, garrantzia handia dauka enpresa nagusiari egiten zaion interpelazioak. Ezinbestekoa da lan berdina baldintza berdinetan egitea. Horren adibide izan ditugu Nafarroako Volkswagen enpresako azpikontrata diren ISN eta ISNN enpresetan lorturiko akordioak, lan baldintzak nabarmen hobetuz eta eros ahalmenari eutsiz.

Lan mundua eraldatzen ari da, baita langileon baldintzak ere. Lana bere zentzu zabalenean ulertu beharra daukagu langi-leriaren errealitate konplexua ulertu eta horri begirako eskaintza egiteko. Horretan ari da LAB.

4.5- Sindikatu antirrazista baterantz

Idazkaritza antirrazista sortu berri dugu, ibilbide baten emaitza gisa. Ibilbide bat egina badugu ere, apaltasunetik egiteke dugun bidea luzea dela esan beharrean gaude. Kurtso honetan jardunaldi antirrazistak burutu ditugu, langile migratu eta arrazializatuak bildu eta gogoeta amankomunak aurrera eramanez. Datorren ikasturtean borroka antirrazista ere gure ekintza sindikalaren zutabeetako bat izateko bitartekoak jarriko ditugu.

Gure ekintza sindikala antirrazista izan dadin, ezinbestekoa zaigu kapitalaren estrategia zapaltzaileari mugak jartzea. Lan baldintzak hobetu beharrean, langile sektore ahulenez jabetzen da prekarizazioan sakontzeko. Hainbat sektoretan hasia da inboluzioa: ostalaritzan, eraikuntzan, landa eremuan, zaintza esparruan... LAB antolakuntzarako tresna izango da lan-gile horiek guztientzat. Horren adibide dira lortzen ari garen ordezkartza sindikalak eremu horietan: arrantzan, Erriberako landa enpresetan, KFC, Amazoneko azpikontratetan... edota etxeko langileekin eginiko prozesua.

4.6- Gazte prekaritatea borrokatuz

Ernairekin dugun aliantzaren ondorioz, Gazteontzako Lan Eskubideen Gida zabaltzen jarraitu dugu kalean, lantegietan zein ikastetxeetan.

Bestetik, gazteen presentzia handiko lantegi zein sektoreetan gazte mugimenduarekin aliantza eta sinergiak bilatu ditugu gazteen prekaritateari ikusgarritasuna emanez eta gaztediak lan gatazketan duen aktibazioa areagotzeko helburuz.

Plantilla oso gaztea duen **Irizar E-Mobility** enpresa dugu horietako bat, akordioa lortu aurretik 22 egunez luzaturiko greba eredugarrian nabaria izan baitzen herri eta gazte mugimenduarekin izaniko sinergiak. Langileek onura garrantzitsuak dakartzan akordioa lortu dute enpresarekin. Langileen determinazioa eta batasuna, egindako greba aktiboa nahiz inguruko eskualdeen elkartasuna, funtsezkoak izan dira horretarako. Borroka honek gazte prekaritatearen auzia agerian utzi du. Izan ere, batez besteko adina 27 urtekoa izanda, langile hauen lan baldintzak zegokiena baino kaskarragoak ziren grebari ekin aurretik.

4.7- Enpleguaren defentsa

Enpleguaren defentsa izan da kurtso honetan aktibatutako borroken beste zutabe garrantzitsu bat. Enpresa itxieren, kale-ratzeen edota deslokalizazioen aurka, langileria kalera atera eta borroka eredugarriak aktibatu ditugu. Horietako bat izan da Tubacex.

Greba mugagabeen 8 hilabetez egon ondoren, kaleratutako langileak enpresara bueltatzea lortu zuten. Borroka eredugarria honetan, langileek Euskal Herriko eskualde oso bat eta langileria izan dituzte bidelagun. Langileen borroka, eskualdearen borrokak, gatazketan zeuden borroka desberdinekin bat egitea lortu zuen: PCB, Petronor, Bilboko argiak,...

5.- BORROKA MOLDEAK ERABERRITZEN

Borroka eta greba eraginkorrak ditugu helburu, patronalari ahalik eta presiorik handiena eta langileei ondorioz arinenak eragiten dizkieten moldeak. Oraindik orain, greba da langileen borroka molderik eraginkorrena patronala presionatu eta akordioak lortu ahal izateko. Guk bultzatu eta aktibatzen ditugun borroka gehienetan grebak presentzia dauka eta oso modu positiboan baloratzen dugu hori. Beraz, grebari dagokion garrantzia eta balioa eman beharra daukagu.

Aldi berean, borroka molde berrietan sakontzen ari gara. Borrokak inklusiboak izatea eta langileen artean atxikimendua izatea bilatzen dugu, langileen protagonismoa bermatuz. Egoera etengabe aldatzen doan heinean guk ere etengabe birpentsatu eta berritu behar ditugu borroka moldeak, eraginkortasuna eta langileen inplikazioa helburu izanik. Birpentsatze honek sindikalismoa egiteko modu berrietara garamatza, eta horretan dabil LAB azken urteetan, prekaritate forma berriek behar duten borroka eskaintza berritzen eta borroka moldeak errealitate horien arabera berrasmutzen.

Piztu Alarma delakoa aktibatu izan dugu Nafarroan eta baita Bilbon (Baseri tabernan) ere. Ordezkaritzarako eskubiderik gabeko eremuetan, abusu individual baten aurrean erantzun kolektibo bat emanaz. Bereziki ostalaritzan erabili dugu.

ERANSKINA

1.- SEKTORE MAILAKO BORROKAK

EREMUA	FEMINIZATUA	BORROKA AKTIBATZEKO ARRAZIOA	GREBA EGON DA	EGOERA
ARABA				
Kiroldegia	EZ	Hitzarmena	BAI	Itxita
Esku Hartze Soziala	BAI	Hitzarmena	BAI	Irekita
Helduen Egoitzak	BAI	Hitzarmena / Estatalizazioa	BAI	Irekita
Metalgintza	EZ	Hitzarmen duina	BAI (3 egun) eta lanuztea	Irekita
Zementerak	EZ	Hitzarmen duina	BAI (egun 1)	Itxita
Gasolindegia	EZ	Hitzarmena	BAI	Irekita
BIZKAIA				
Eraikin Garbiketa	BAI	Hitzarmena	Bai, 6 greba egun deituak	Irekita
Elikadura	BAI	Hitzarmena	EZ	Itxita
Merkataritza	BAI	Hitzarmena	Bai, 3 greba egun deituak	Irekita
Aniztasun Funtzionala	BAI	Hitzarmena	EZ	Irekita
Helduen Egoitzak	BAI	Hitzarmena	BAI	Irekita
Kontserberak	BAI	Hitzarmen duina	BAI (egun 1)	Itxita
Metalgintza	EZ	Hitzarmen duina	BAI (deialdia 3 egun)	Irekita

EREMUA	FEMINIZATUA	BORROKA AKTIBATZEKO ARRAZOIA	GREBA EGON DA	EGOERA
GIPUZKOA				
Gipuzkoako Aldundiko garbiketa	BAI	Hitzarmena	Bai, guztira 20 egun	Irekita
Ostatuak	EZ	Hitzarmena	Bai, 3 egun deituak	Itxita
Merkataritza	BAI		BAI	irekita
Helduen egoitzak	BAI	Hitzarmena	BAI	Irekita
Egurgintza	EZ	Hitzarmen duina	EZ	Irekita
Grafikagintza	EZ	Hitzarmena	EZ	Irekita
Papergintza	EZ	Hitzarmena	EZ	Irekita
NAFARROA				
Administrazioa Nafarroa	EZ	Euskarafobia	EZ	Irekita
Bulegoak	EZ	Hitzarmen	BAI, lanuzteak	Irekita
0 - 3	BAI	Hitzarmena	BAI	Irekita
Irakaskuntza Publikoa	BAI	COVID ordezkapenak / Hezkuntza ituna bete	EZ	Irekita
Kirol kudeaketa	EZ	Hitzarmena	EZ	Irekita
Helduen Egoitzak	BAI	Lan Hitzarmena / Es-tatalizazioa	BAI	Irekita
EAE				
Osakidetzako garbiketa	BAI	Hitzarmena	BAI, 3 greba egun deituak	Irekita
Anbulantziak	EZ	Publifikazioa	EZ	Irekita
Irakaskuntza Publikoa	BAI	Pandemiagatiko murrizketak	Orokorrik EZ, lan zentru batzuetan BAI	Itxita
Etxeko langileak	BAI	Hitzarmena	EZ	Irekita
HEGO EUSKAL HERRIA				
Ikastolak	BAI	Lan errefroma	EZ	Irekita

2.- ENPRESA MAILAKO BORROKAK

ENPRESA	SEKTOREA	FEMINIZATUA	BORROKA AKTIBATZEKO ARRAZOIA	GREBA EGON DA	EGOERA
ARABA					
HOPREMASA	Zementua	EZ	Hitzarmena	BAI	Irekita
FLANKER, Embalajes Echebarria	Egurgintza	EZ	ABEE	EZ	Irekita
Bacalao Giraldo	Elikagai Industria	BAI	Lan jardunaldia	EZ	
FRONERI, MIKO	Elikagai Industria	BAI	Hitzarmena	EZ	Irekita
AP1	Eraikuntza	EZ	Kaleratzea, Hitzarmena,	Bai Lanuz- teak	Irekita
FOURNIER	Grafikak	EZ	Hitzarmena	EZ	Irekita
TUBACEX	Industria	EZ	EEE . 129 Kaleratze	BAI (232 egun)	Itxita
AURIA	Kimika	EZ	ABEE, Lan osasuna	EZ	Irekita
BIOMENDI-ALTAN	Kimika	BAI	Hitzarmena	BAI	Itxita
ROCHLING	Kimika	EZ	Hitzarmena, ABEE	EZ	Itxita / Irekita
Michelin	Kimikak	EZ	Kalerapenak Malgutasunak	EZ BAI	Itxita Irekita
Saltoki Gasteiz	Merkataritza	EZ	Hauteskunde sindikaletan diskriminazioa	EZ	itxita
DETESA	Metalgintza	EZ	ABEE, Hitzarme- na	EZ	Irekita
BAIKA	Metalgintza	EZ	Hitzarmena, KPI- aren Inaplikazioa	EZ	Irekita
BENELLI	Metalgintza	EZ	Kategoriak	EZ	Irekita
Elecnor Proyectos y Servicios	Metalgintza	EZ	Kaleratzeak	BAI, Lanuz- tea	
FIASA	Metalgintza	EZ	Jasarpn sexuala	BAI Lanuz- teak	Irekita
GIROA	Metalgintza	EZ	Kantitateak, Guardiak	EZ	Irekita
INGENOX	Metalgintza	EZ	Kaleratzeak	EZ	Itxita
Mercedes	Metalgintza	EZ	ABEE	BAI	Irekita

ENPRESA	SEKTOREA	FEMINIZATUA	BORROKA AKTIBATZEKO ARRAZOIA	GREBA EGON DA	EGOERA
ARABA					
OLAN	Metalgintza	EZ	Hitzarmena	EZ	Irekita
RUBI	Metalgintza	EZ	ABEE, Hitzarmena, Kategoriak	EZ	Irekita
SDA	Metalgintza	EZ	Enplegu bermea/Lan baldintzak	BAI	Irekita
Talleres Betoño	Metalgintza	EZ	Paktua	EZ	
TLA (Tubos Legutiano de Automoción)	Metalgintza	EZ	Hitzarmena / Lan Osasuna	EZ	
Tubos Reunidos	Metalgintza	EZ	Soldata	BAI	Itxita
BIZKAIA					
CEMENTOS LEMONA	Kimikak	EZ	Hitzarmena	EZ	Itxita
Madres Mercedarias	Soziokomunitarioa	BAI	Hitzarmena	BAI	Irekita
Dia Bizkaia	Elikadura merkataritza	BAI	Hitzarmena	BAI, greba egun 1	Irekita
Dia Bizkaia	Elikadura merkataritza	BAI	Hitzarmena	Bai, greba egun 1	Irekita
ARTIACH	Elikagai industria	BAI	Hitzarmena	BAI (154 egun)	Itxita
Amazon ebox	Garraio	EZ	Kaleratzea	Bai, 3 greba	Itxita
Avanza	Garraio publikoa	EZ	Hitzarmena	BAI	Irekita
SERVIFORM	Grafikagintza	EZ	Kaleraketak	EZ	Itxita
IDE	Informatika	EZ	estatalizazioa	BAI	Irekita
ROAL S.L.	Kimika	EZ	ABEE / Soldatak	EZ	
AKT PLASTICOS	Kimika	EZ	Paktua	EZ	Itxita
PROFERSA	Kimika	EZ	Paktua (enplegu bermea)	EZ	
Indusal	Garbitegia	BAI	Hitzarmena	Lanuzteak	Itxita
Bilbobizi	Metal merkataritza	EZ	Paktoa	Ez	Itxita
ALUDIUM	Metalgintza	EZ	Negoiazio Kolektiboa (KPI...)	BAI	Irekita
NEMAK	Metalgintza	EZ	ABEE	EZ	Irekita

LABen EKINTZA SINDIKALEKO INFORMEA

ENPRESA	SEKTOREA	FEMINIZATUA	BORROKA AKTIBATZEKO ARRAZOIA	GREBA EGON DA	EGOERA
BIZKAIA					
ALCONZA	Metalgintza	EZ	Kaleraketak, EEEa	BAI (jarraitzen dute)	Irekita
ESTAMCAL	Metalgintza	EZ	Negoiazio kolektiboa+ paga bat zorre- tan	EZ	Irekita
MICRODECO	Metalgintza	EZ	Concurso de Acreedores	BAI	Irekita
SCHINDLER	Metalgintza	EZ	Paktua	EZ	
TECNICHAPA	Metalgintza	EZ	Hitzarmena	Greba (3 egun)	Itxita
TENNECO	Metalgintza	EZ	Mutualitatearen jarreraren kontra (lan gaixotasun- ak Osakidetza- ak bideratzea, haurdunaldi arriskuagatiko bajen atzerape- na, tratu iraingarria...)	EZ	
ALGA - INERVOL	Metalgintza	EZ	Hartzekodunen konkurtoa	BAI	Irekita
IMQ analisis	Mutuak	EZ	Hitzarmena	Bai	Itxita
Bilboko TAO	TAO	EZ	Hitzarmena	Bai, greba egun 1	Irekita
CEMOSA	Papergintza	EZ	Haurdun dauden langileentzako protokoloa (lan osasuna)	BAI (Greba deialdia. akordioa greba baino lehen)	Itxita
APNABI	Soziokomunitarioa	BAI	Lan hitzarmena	EZ	Irekita
Gorabide	Soziokomunitarioa	BAI	Lan hitzarmena	EZ	Irekita
Madres Desamparadas	Soziokomunitarioa	BAI		BAI	Irekita
SOS 112	Telemarketing	BAI	Murrizketak/ Pleguekin batera hitzarmen alda- keten saiakera	EZ	Irekita
Homeserve	Telemarketing	BAI	Paktua	BAI, 3 greba egun	Irekita

ENPRESA	SEKTOREA	FEMINIZATUA	BORROKA AKTIBATZEKO ARRAZOIA	GREBA EGON DA	EGOERA
BIZKAIA					
Gernikako Udala	Udal Foru	EZ	Egonkortasuna	BAI	Irekita
Erandioko Udala	Udal Foru	EZ	Lan baldintzen funtsezko alda- keta	EZ	Irekita
CONTRATAS PETRO- NOR	Denetarik	Bakarrik garbiketako eta jantokiko kontratak	Paktua	BAI (4 egun)	Itxita
GIPUZKOA					
Norantz	****	EZ	Hitzarmen falta	Ez	Irekita
Bankoa	Banka	EZ	EEE	Bai, greba 1	Galduta
Sabadell	Banka	EZ	EEE	Bai, 2 greba	Galduta
Lidl Gipuzkoa	Elikadura merka- taritza	BAI	Paktua	BAI, greba egun bat deitua Ez egina	Itxita
Urkabe Benetan	ELIKAGAI INDU- STRIA	BAI	Hitzarmena	BAI	Itxita
Aldundiko garbiketa	Garbiketa	BAI	Hitzarmena	BAI, guztira 20 egun	Irekita
Avanza	Garraio publikoa	EZ	Legez kanpoko kontratazioa	EZ	Irekita
Bidelan	Garraio publikoa	EZ	Legez kanpoko kontratazioa	EZ	Irekita
Ekialdebus	Garraio publikoa	EZ	Hitzarmena	BAI	Irekita
Mariskone	Kimika	EZ	Hitzarmena	Bai	Irekita
Arteca	Kimikak	EZ	Enpresariaren jarrera	Lanuztea	Itxita
Lezoko Kiroldedia-BPX	Kiroldedia	BAI	Paktua	Bai, 2 egun eginak, 2 hileko borrokaldia deituta	Itxita
ABC	Metalgintza	EZ	Hitzarmena	EZ	Itxita, hitzarmena sinatu zen.
Arcelor Mittal Olaberria	Metalgintza		Heriotza lan istripuan	Lanuztea	Irekita

LABen EKINTZA SINDIKALEKO INFORMEA

ENPRESA	SEKTOREA	FEMINIZATUA	BORROKA AKTIBATZEKO ARRAZOIA	GREBA EGON DA	EGOERA
GIPUZKOA					
CAF	Metalgintza		Lan osasuna, Amianto	BAI, Lanuz- tea	Irekita
			Azpikontrazioa		Irekita
			Ordu boltsa aplikatzea		Irekita
			Lan prozesuen kontrol digitala		
			Ordu poltsa aplikatzea	BAI (deialdia)	Irekita
Camepack	Metalgintza	EZ	Enpresa paktua	Ez	Itxita
Fudike	Metalgintza	EZ	Enpresa paktua	Lanuzteak	Irekita
Giroa Veolia	Metalgintza	EZ	Hitzarmena	Bai	Irekita
GRI CASTINGS	Metalgintza	EZ	ABEE	EZ	Irekita
GRI CASTINGS	Metalgintza	EZ	Hitzarmena	Ez	Irekita
Hansa Flex	Metalgintza	EZ	Jazarpen sindikala	Ez	Itxita
Irizar E-Mobility	Metalgintza	EZ	hitzarmena	BAI	Itxita
Jaso EO (Idiazabal)	Metalgintza		Hitzarmena	EZ	Irekita
Laser Goiken	Metalgintza		Kaleratzeak- jazarpen sindi- kala	Greba egun bat	Irekita
Oilgear Towler	Metalgintza	EZ	Gatazka, Hitzarmeneko KPI igoera ez aplikatzeagatik	EZ	Irekita
OSATU	Metalgintza	EZ	Egutegia	EZ	Itxita
Prodema	Metalgintza		Kaleratzea		Irekita
RTS	Metalgintza	EZ	Hitzarmena (KPI- aren aplikazioa)	EZ.	Irekita
Salva	Metalgintza	EZ	Hitzarmena	BAI	Irekita
Schaeffler Iberia	Metalgintza	EZ	Kaleratzeak		Irekita
SNA Europe	Metalgintza	EZ	Hitzarmena	BAI	Irekita
Elektra	Metalgintza	EZ	Hitzarmena	BAI	Irekita
Intza,SA	Metalgintza	EZ	Paktua	EZ	Itxita

ENPRESA	SEKTOREA	FEMINIZATUA	BORROKA AKTIBATZEKO ARRAZOIA	GREBA EGON DA	EGOERA
GIPUZKOA					
Ordelan, SL	Metalgintza	EZ	Nominen ordainketa	Paro deialdiak	Irekita
Enhe gipuzkoa	Pentsu merkataritza	EZ	Paktu propioa	BAI, 3 greba egun	Itxita
Cementos Rezola	Porlana	EZ	Hitzarmena/Enplegua	Paroak egin dira	Irekita
Hernaniko Etxez etxeko laguntza-EULEN	Soziokomunitario	BAI	Hitzarmena	BAI, deialdia	Itxita
Onkologikoa	Soziokomunitario	EZ	Lan hitzarmena / Publikazioa	EZ	Irekita
Pasaiako etxez etxeko laguntza	Soziokomunitario	BAI	Hitzarmena	BAI, mugagabea	Irekita
Kelsen	Zeramika	EZ	Enpresa hitzarmena	Iragarpena	Itxita
Autlan		EZ	Lan osasuna	EZ	Irekita
Ferrovial		EZ	Kaleratze 1		
Igepak		EZ	Paktoa	BAI	
Juan de Garay		EZ	Hitzarmena	Lanuzte mehatxua	Itxita. Sinatuta.
Michelin		EZ	Estatalizazioa	EZ	
NAFARROA					
ISNN	Aparkalekuak	EZ	Paktoa	27 egun greban	Irabazita
Huerta de Peralta	Landa	EZ	Akordioak	BAI	Irekita
Gureak	Enplegu zentru berezia	EZ	Soldata igoera - KPI	BAI	Irekita
Confederación empresas públicas	Enpresa publikoak	EZ	Hitzarmena	BAI	Irekita
Garbiketa pleguak Iruñeko udala	Garbiketa	BAI	Pleguak	EZ	
ISN VW	Garbiketa	EZ	Paktoa	Greba deialdia	Itxita
Dysait	Garraioa	EZ	Paktoa	Lanuzteak	Itxita
Iruñeko haur eskolak	Irakaskuntza	BAI	Euskarafobia	EZ	Irekita
Txirinbulo haur eskola Altsasu	Irakaskuntza	BAI	Lan Hitzarmena	BAI	Irekita
FCC Limpieza Viaria Iruñea	Kale Garbiketa	EZ	Paktoa	Greba egun bat	Itxita
5 club deportivo	Kirol kudeaketa	EZ	Hitzarmenak	3 greba deituak	Irekita

LABen EKINTZA SINDIKALEKO INFORMEA

ENPRESA	SEKTOREA	FEMINIZATUA	BORROKA AKTIBATZEKO ARRAZOIA	GREBA EGON DA	EGOERA
NAFARROA					
Orkoiengo igerilekuak	Kirol kudeaketa	BAI	Murrizketak	Ez	
Iruñeko lorezainak	Lorezaina	EZ	Baldintzak	Lanuzteak	Irekita
Urban Sons	Merkataritza	BAI	Kaleratzerik ez	Ez	Itxita
ISRINGHAUSEN (Asientos Esteban)	Metalgintza	EZ	Paktua	BAI (4 egun + mugaga- bea)	Itxita
SCHNEIDER	Metalgintza	EZ	Paktua	BAI , Lanuz- teak	Irekita
TRENASA	Metalgintza	EZ	Hitzarmena	EZ	Irekita
PAPABEECH	Papera	EZ	Paktoa	BAI (10 egun)	Itxita
TORRASPAPEL	Papera	EZ	Hitzarmena	BAI (22 egun)	Itxita
Tasubinsa	Soziokomunitarioa	EZ	Kaleratzeak / Lan hitzarmena	BAI	Irekita
Elizondoko zahar egoitza	Soziokomunitarioa	BAI	Hitzarmena	BAI (8 egun)	Itxita
EAE					
Haurreskolak Partzuergoa	Irakaskuntza	BAI	Ordezkapenak betetzea	EZ	Irekita
Heziketa berezi publikoa	Irakaskuntza	BAI			
Hezkuntza publikoa	Irakaskuntza	BAI	Hezkuntza legea	BAI	Irekita
Hezkuntza publikoko sukaldari eta garbitzaileak	Irakaskuntza	BAI			
Osakidetza	Osasungintza	BAI	Lehen arreta / lan hitzarmena / egonkortasuna	BAI	Irekita
Telelaguntza Zerbitzua	Soziokomunitarioa	EZ	Lan hitzarmena	BAI (deialdia)	Irekita
HEGO EUSKAL HERRIA					
RIDERRAK	Riderrak	EZ	Faltso autonomoak	EZ	Irekita
Teknikariak	Teknikariak	EZ	Hitzarmena	Greba egun bat	Irekita
Correos	Posta	EZ	Lan baldintzak	EZ	Irekita